

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA
Garapen Estrategikoa eta Etxebizitza

142/2026 Prozedura arruntean epea jartzea

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. sekzioan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (142/2026 zenbakiko prozedura arrunta) izapidetzen ari da; Vitoria-Gasteizko Arcaute Elorriaga 18. sektoreko jabeen elkarteak aurkeztu zuen errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2025eko abenduaren 22ko erabaki baten kontra (2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia), zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen Vitoria-Gasteizko hiri antolamenduko plan orokor berria. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikuluaen ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 10ean

Hirigintza zuzendari nagusia
MIKEL INCHAURBE OCERINJAUREGUI